

Euskaraz Gazte Literatur lehiaketa 2007



Sarituak

Ipuinak

- 1.- Bederatzi hilabete. Jon Agirresarobe Lopetegi*
 - 2.- Hiltzailea, ni. Miriam Garcia Etxeberria*
 - 3.- Beti, ez beste inoiz. Garazi Urretabizkaia Zabaleta*
- Accessita: Azken hitzen balioa. Eli Urdangarin Zumeta*
Accessita: Egoismo eta gabardinez. Ane Etxabe Arruti

Olerkiak

- 1.- Arrantzaleak leen eta orain. Joxe Mari Lertxundi Zuloaga*
- 2.- Oroitzapenen ganbara. Garazi Urretabizkaia Zabaleta*

Bederatzi hilabete

Jon Agirresarobe Lopetegi

Julianena izaten da, goizero, lehen agerraldia. Goizeko zortziak eta hamar, buelta horretan, behar du gizonak. Hala ez bada, ez zaizkio gauzak nahi bezala atera. Bi urte izango dira, honezkero, jubilatuz zela, baina ez da bizimodu berrira jarri. Laster utzi zion arrain txiketara joateri, baina labana txikia eta mareen taula patrikan eramaten ditu oraindik. Gutxien uste duenean izaten du batek baten eta bestearen beharra.

Erlojuari begira bizi da. Casio beltza pintura marka urdinekin. Julianen garaian urtero margotzen zen ontzia kostera hasi aurretik. Ordu laurdenero begiratzen ohi duen erloju zaharrean gelditu dira arrastoak, pintura tantak. Ez du bizimodua horrenbeste kontrolatu beharrik, ez baita mezetara joaten, ez du lagunekin museko partida jokatzeko ohiturarik. Hori bai, ez kendu goizero buelta: urteak dira kofradia azpitik barometroa lapurtu zutela, baina neguko egunik hotzenetan ere goizero egiten du muntotik barrena hondartzarainoko bidea. Mahoizko galtzak eta kofradiako polarra. Berak urtu beharrean ere ez du arroparik kentzen. Ez du, agian, Euskadiko Itsas Gaztediaren kamiseta erakutsi nahi izango. Zortzietan ireki tzen dute etxepeko janari dendak eta periodikua eta ogia erosteko beta hartzen du. Hamar minutu, ez gehiago. Han izaten du herriko berri; halere, kontu interesgarria behar du oso Julian hizketan luzatzeko. Eguneroko orduan moila gainean behar baitu gizonak, beso buruak eta hanka ezkerra baranda zuriaren kontra jarrita. Begiratu botako die motor txikiei, ea txikotek bihurrik hartu duten edo ez.

Urrutira ikusi du Manuel, baina parean izan arte ez dio bururik altxa Julianek. Lehorra da Julianen egunona. Ez dago zertaz hitz egin erabaki beharrik, berdela-ren kostera da urte sasoi honetan jubilatuen hitz asper-tuetan lehen minutuak osatzen dituenak. Baina ez dute arrantzaz bakarrik hitz egiten. Kiroldetik bueltan dator Manuel eta telebistari begira izan da han. Hara, hizketarako gai berriak!

Jubilatu denetik dozena bat kilo hartu ditu eta nabarmen puztu zaio gerri buelta. Emazteak kiroldegiko urteko bonoa oparitu zion urtebetetzean, eta ordutik gurrupilik gabeko bizikletan egiten ditu, egunero-egunero, hamar kilometro. Ez gehiago eta ez gutxiago, hamar. Hirurehun kaloria erretzen ditu, eta Goreti medikuak nahikoa direla esan zion. Bazkaldu bitartean moila gainean egoten da. Besteak hamaiketako egitera joaten direnean plazako bankuetan eserita gelditzen da Manuel. Gosetzen denean, tripari begiratzen dio. Ez zaio kome-ni aulkitik altxatzea, elkartera joateko bada behintzat. Hori bai, bazkaria hamabiak eta erdietan puntuan.

Kontentu dabil Manuel azkenaldian, besteak hamaiketako egiten ari diren bitartean plazan kontu-kontari egoteko laguna aurkitu baitu. Hilabeteak egin ditu gizonak, bankuan eserita, pasakoekin eguraldiaz edo aurretik pasa den anbulantzia zein etxetara joan den asmatu

nahian. Agonia joz gero, herriko plazan hilzorian dauden guztien errepassoa egiten dute. Periodikua esaten du zeinek zuen arrazoi. Baina orain Jabierekin egoten da. Jabier eta Maddirekin. Biloba zaintzea tokatu zaionetik honi ere amaitu zaio hamaiketako eta txikiteoa. Jubilatuek jarri dute praktikan berdintasunaren legea. Aiton-amonek egin behar, semearen eta errainaren faltan. Plazako bankuan igual hasten dira umeari pardela aldatzen. Lizundutako ogia jan izan duten marinela zaharrentzat ez dago lan txarrik. Olatu artean pasa zituzten seme-alaben lehen urteak, eta bilobari kontatuko dizkiote bere umeei kontatu ez dizkieten mila istorio. Amatorri ez esatekotan poltsetan etortzen diren zerrikeriak erosten dizkiote umeari. Pasarakoek ogi koxkorra ematen diote, eta sutan jartzen da Manuel, bestela ere ez baitu batere goserik pasatzen. Esku batetik bestera ibiltzen dute Maddi; jubilatuz koadrila osoarekin joaten da apapa.

Goizeko hamarrek jo dute, udaleko langileak jaitsi berri dira kafea hartzera. Ordu horretan irekitzen dituzte plaza inguruko hiru tabernak. Martxielen eguneko poz txikia izaten da terrazako aulkiak eta mahaiak jartzen ari den neska gaztearekin bi hitz egitea. Bere osabarekin soldadu joan zen Tangererra. Neska gazteak mila aldiz entzun dizkio kontu horiek, baina pazientzia handia dute gure herriko zerbitzariak.

Asko sufritutakoa da Martxiel, eta lasai asko aitor-tzen du berak; orain, jubilatuz hartuta, goizean lo egitea gustatzen zaio. Bera izaten da moilara iristen azkena. Julianek erlojuari begiratzen dio Martxiel ikusten duen bakoitzean. Ordurako bi ordu daramatza berak, mugitu ere egin gabe, barandaren kontra jarri eta harrizko eskailerari begira.

Martxielen aurretik iritsi da banda. Patxi, Gregorio eta Jose Luis. Bezperan telebistan ikusitakoaz ari dira hizketan. Haserre daudela ematen du: Julianen ondoran jarri da Patxi, San Gabrielen elkarrekin ibili ziren urte askoan eta berak bakarrik jasaten ditu Julianen egoskoraldiak. Gregorio eskuak patrikan sartuta egoten da plazara begira, eta desgraziaren bat gertatu beharko du buelta eman eta erriara begira jartzeko. Bera da trainerua pasa eta plazara begira jarraitzen duen bakarra. Jose Luisi, berriz, mutiloian eserita egotea gustatzen zaio; Julianek esaten duen moduan, nekatuta jaiotzen eta ahal den moduan bizi behar hil bitartean.

Elizako obretan erabili zuten garabi bera erabiliko zutela uste zuen Gregoriok. Baina, azkenean, Julianek arrazoi: kutzare eta kamioi berriak ekarri zituzten. Berriak eta asko. Metro eta erdiko aluminiozko hesi hura zen plaza eta moila gainaren arteko muga. Athleticeko poste txikiak eta kateak kendu zituzten aurrena; baranda zuria gero. Aparkalekurik gabe gelditu ziren herritarak, baina zerbait gehiago galdu zuten jubilatuek.

Julian izan zen lehena plazara iristen. Berak behar zuen, hori ez zen nobedade. Plazatik ibaiaren kontrako alde bakarrik ikusten da, eta hesiaren kontra jarri duten toldo berdeak ez zion Arin Enbileneko aurrea ikusten ere uzten. Ikusmin handia piztu zuten kamioien joan-etorriek, Martxiel bera ere zortzi eta erdiak alderako plazara agertu zen-eta. Munizipalari galdetu zion Julianek, zenbat iraun behar zuten moila berritzearen obrek. Bederatzi hilabete, Maddi txikiaren haurdunaldiak bezala, alegia. Konparazio hori egin zuen Jabierrek berria jakin bezain pronto.

Gregoriok eta Manuelek gustua hartu zioten plaza-bankuetan eseri eta pasarako guztiekin hitz egiteari. Baina, denak ez ziren kontentu. Berritze lanen alde, batzuk; besteak, kontra. Maddik ezin zuen gehiago, ordea, makinen zaratak ez zion lotan uzten. Eta ama-xapuek eta amarrek beldurra ematen zioten. Ez dago halako salabardorik: hondar altxaldi bakoitzean berrogeita hamar bat ale ikusten ziren John Dhere markako kutxarean zintzilik. Hesiaren azpitik plazaraino iristen ziren. Makinen ihesi alkantarilako putzu zuloetan gordetzen zuten burua, autoren baten gurpilak zapaldu arte.

Halako batean, bere garaian Gregoriok atxamartarekin jaso ezin zuen bizikleta atera zuten uretatik. Auskalo zenbat urte egin zituen bizikleta hark, ur azpian. Julian konturatu zen makinistaren arrantzaz. Lagun baten semearena omen zen bizikleta eta, katea aldatuz gero, berria bezala egongo omen zen oraindik. Julianek esana. Elizako aldapa igo zuen, bizikletarekin zer egin zuten ikusteko. Ez zen langileez batere fidatzen, tartean ez zen eta herritarrik.

Zimitorioak izango ditu, agian, herriko bista onenak. Moilako obrak ere primeran ikusten ziren. Gainera, leku baketsua izan da, beti, plaza aldeko eliz ataria. Imintzioka ari zen Julian, eta gora egin zuten jubilatuek. Igo-gailu berrian igo zuten Maddi txikia. Baita Manuelen kiroldegiko poltsa ere. Bera oinez, aterkia bastoitzat hartuta, aldapa igotzea eta jaistea ona baita gerri buelta mehetzeko.

Hurrengo egunean ere han bildu ziren denak. Non bilatu ikuspegi hoberik. Jendearen joan-etorriak, botikara sartzeko zirenak, mezetatik atera berriak, denak kontrolpean. Gazte jendeak globoak botatzeko erabili izan du leku hura. Jubilatuek okupatu zuten, ordea. Gauez joan beharke zuen pintadaren bat egin nahi zuenak. Jose Luisek egin zuen protesta bakarra, plazako estalpeak ezkutuaz uzten zuen Oria, eta hala ez zegoen traineruaren entrenamendua ikusterik. Gainera, saloiaren faltan, bustitzekotan, zubira joatea erabaki zuen jubilatuen juntak. Apaiz berriarekin ere izan zuten hika-mikaren bat, meza garaian kanpoko zarata entzuten omen zen-eta. Julian eta Gregorio bakarrik gelditu ziren, bata besoak baranda gainean jarrita, bestea eskuak patrikan sartuta.

Zubira joan ziren. Manuel iritsi zen aurrea, eta gaitz nontzekoak ez ziren, bidean, Zaharren Babes Lekuan gelditu. Kiroldegiko entrenamenduek eta *Xarpasen* ariketa taulak markatu zuten diferentzia. Handik primeran ikusten dira traineruaren entrenamenduak. Baita anguletako motorrak bere horretan dauden eta portuko zuloan almejetan ari diren edo ez. Gertu gelditzen dira gazteen tabernak, eta moila gaineke obrei ere beste itxura bat hartzen zaie goitik begiratuta. Txiki-txiki eginda dago, hilabete bakarrean.

Baina buruarekin ezetz egin zuten Jabierrek, Maddikoinez ikasten hasi behar zuen laster eta zubiko espalo estuetan apenas dago lekurik. Mutiloian eserita egoten ohituta, Jose Luisek ez zuen esertzeko leku egokirik bilatu, eta honek ere muturra zimurtu zuen. Gregorio eta Julian ere zubian ziren ordurako. Egoskorretan egoskorrenak proban jarri zuen zubiko baranda. Ez dauka hanka jartzeko lekurik. Beste akats bat bilatu zion Gregoriok: gazteen pankartak parean gelditzen zitzaizkien. Zubia ere ez zen baleko tokia. Hala esan zion aitona Jabierrek Maddiri: *Hurrengoan, ziklistak ikustera etorriko gara zubira.*

Anibarko Portura bidean dauden bankuetan probatu zuten gero. Lehen astean denak gustura, baina handik joatea erabaki zuten bigarrenean: goiz erdian tokatu zen marea beheran, eta hango usainak ezin zuen ona izan, ez Maddirentzat ezta jubilatuko koadrilarentzat ere. Begientzat ere ez da batere ikusgarria lokatz pila hura. Hori gutxi balitz, denak ez ziren banku batean sartzeko, eta banda bitan banatzeko arriskua zegoela ikusita hartu zuten erabakia. Arrantza urteetan ere gauza bera gertatu zen. Gorriak eta urdinak, bi koadrilatan banatu ziren ontziak, kolorearen arabera. Gure Zita eta San Juan etorri ziren arte. Beltza eta zuria.

Mareen taula hartuta proposamena egin zuen Julianek: itsas gora zegoen unetan bankuan eserita egotea, eta lokatzak bistaritzen zirenean pareko tabernara sartzeko. Eskuarekin esan zion ezetz Manuelek. Pintxo onegiak jartzen omen zituzten bazkaldu arteko barauari eusteko.

Manuelek gomendatuta eta arrantzaleei ia-ia berdelaren prezioan ateratzen zaielako, kiroldegiko bazkide egin ziren denak. Ederki kosta zitzaien Julian konbentzitzea. Gustua hartu zioten, gerora. Bizikleta gainean jarri eta karreran hasten ziren Julian eta Joxe Luis. Tour de Frantziako etapa bat osatzera iritsi zen Manuel, eta hamabi kilo galdu zituen, batere kosta gabe. Goretik agindutako dieta egin gabe behinik behin. Martxielek eta Gregoriok orduak egin zituzten saunan, katarroaren kontra ez omen dago hura bezalakorik. Aldizkariak irakurtzen pasa ohi zuten eguna, bizar zaharrak berotan urtzen.

Jabier ez zen kiroldegiko bazkide egin, paseoan egin zituzten kilometroak, bonorik ordaindu gabe. Ma-

ddi oinez ikasten ari zen.

Egun batez, lipotimia txikia eman zion Gregoriori; saunan sartuta lo hartu zuen eta esnatzerako ez zen atea irekitzeko gai. Ondoan zuen Martxiel, baina ez zen konaturatu; borborka zegoen hura, baineran sartuta, garbantzuak bezala beratzen. Anbulatoriotik korrika irten zen Goreti; baina, azkenean, susto txiki batean gelditu zen kontua. Saunan sartzea debekatu zioten bikote alferrari—Julianen esanetan marinela alferren fama zuten Gregoriorik eta Martxielek—.

Kofradiatik gertu aurkitu zuten gordeleku berria marinela jubilatuek, anbulatorio atzean. Moila gainean egotea bezala zen ia, barrezka ari den aho formako eskulturaren oinarrian eserita. Gazte koadrila bat gerturazten zitzairen gehienera jota, baina goizean goiz okupatzen zuen lekua Julianek eta nor ausartu ezer esatera, nor ausartu nahikoa gertu jartzera. Leihotik begira egoten zen Goreti medikua. Gezurra zen urteroko analisisan esandakoa: erretzen harrapatu zuen Patxi.

Ez zuen medikuak bakarrik aurkitu. Patxiren alaba kezkatuta zebilen, hamalau urteko alaba gaztea bera baino zazpi urte zaharragoa den mutil batekin autoan paseatzen ikusi zuen igande arratsalde batean. Azkarregi kokortu zitzaion umea, eta horren beldur zen ama. Paseoan zebilela bere alabaren lagun mutila edo mutil laguna anbulatorio atzean ikusi izan zuela etorri zitzaion gogorra, eta begiratu bat botatzera joan zen. Ez zegoen bere alabaren lagunik, ezta alaba bera ere. Aita topatu zuen, eskuan zigarroa zuela. Bihotzekoak eman zionean agindu bakarra eman zion medikuak, tabakoa uzteko. Euren begiekin ikusi zuten ke pila hura.

Patxik lekuz aldatu behar zela agindu zuen. Egun batzuetan hondartzara aldera pasian joan zen koadrila. Martxieli ez zion graziaz egin eta hirugarren egunerako eskutan ekarri zuen soluzioa. Akabo buruhausteak: giltza sorta, tartean anaiaren sotoko giltzak. Gazteek ere badaukate, eta zergatik ez dugu geuk ere izango!

Denei gustatu zitzairen ideia, baita Juliane ere. Segituan hasi ziren paretak margotzen eta lokalerako behar zituzten trasteak biltzen, itsasora joan aurretik egin ohi zuten gisara. Arrantzaleei eskatu zieten karroa. Manuelen alaba obretan zegoen etxean, eta aitak eskatu zion, arren, saloiko mahaia eta harrera gelako banku txikia ez botatzeko. Jose Migelek goiko kaleko kontenedore baten ondoan aurkitu zituen hiruzpalau sofa. Ordurako bigunbigun eginda zeuden, laster antzeman zuten gerri gogorrek.

Gregoriorik San Juan ontziaren koadroa ekarri zuen paretan zintzilik jartzeko. Baina gehienei ez zitzairen gustatu. Norbere ontziaren argazkia ekartzen hasi ziren: Bilboko Abran baino itsasontzi gehiago zegoen soto zahararen hormatan. Azkenean 1983an Donostiako Estropada irabazi zuen tripulazioaren argazkia jarri zuten, hura izan zelako, seguru aski, errazen irabazi den urtea.

Hori bai, Jabierri bere bilobaren argazkia jartzen utzi zioten. Ordurako Maddi txikia eskolara joaten hasi zen, eta bolada txarra pasa zuten denek txikiaren faltan.

Sotoa elegante jartzen pasa zituzten asteak eta asteak. Ping-pongeko mahaia bat lortu zuten, eta frontoiko-eheldulekua erditik moztuta egin zituen Gregoriorik pala berriak. Futbolina eta saskibaloiko saskia ere jarri zituzten. Denborarekin, baita bideoak ikusteko aparatua eta telebista ere. Bero-bero eginda ibili ziren ordenadorea jartzeko, baina bizilagunak ezezkoa esan zioten banda zabala jartzeari. Haserre samar zeuden lehen pisuan ezker-eskubi bizi ziren bi bikote gazteak, egun osoan Benito Lertxundi entzuten egon behar izaten zutelako.

Leiho zabalak zituen Martxielen anaiaren lokalak. Herritarrek zelatan egoten ziren. Jubilatuen emazteak, gehienbat. Zigarroak ezkutuan erretzeko zuloa aurkitu ote zuten kezkatuta zeuden zeharo. Baina gizonak sotoa prestatzen ari zirela hartu zuten erabakia, lokal hartan ez zegoen erretzerik. Manuelek, aparkatzea galarazten duen trafiko seinalea eskatu zion bere suhiari, herriko munizipala baitzen bere alabaren senarra. Zigarro itxurako zerbait marraztu zuen seinale gainean, eta beste mezu hau azpian: *alferrik da gero kiroldegira joatea*. Jendeak erreparorik gabe begiratzen zuela ikusita, kartoi eta plastiko ilunekin estali zituzten leihoak.

Ostegun batean Martxielek bilerara deitu zituen. Txikiteo orduan jarri zuen hitzordua, eta anaiarekin etorri zen. Semeak auto berria erosi behar zuela eta garrak behar zuela azaldu zuen soto zahararen jabeak. Adios lokalak! Buruari heldu zioten Julian, Patxi eta Jose Marik. Bi egunetan hustu behar zuten guztia. Gazteei eman zitzaizkien ping-pong mahaia, palak, sofak eta lauogeita hiru-ko Kontxako tripulazioaren koadroa. Lan denak eginda, norbere itsasontziaren koadroa besapean hartuta agurtu zuten, zazpi hilabetez bada ere, poz pixka bat eman zien lokal hura.

Larunbat goiza. Jubilatuen junta herriko plaza erdi-erdian. Lurrean pankarta marraztu nahian ari dira. Kartelez josi dituzte herriko kaleak. Herriko aldirian elkarriketa egin diote Gregoriori, bandaren ordezkariari. Ez dira ados jartzen, ordea. Herrian aparkatzeko lekurik ez dagoela eta sotoetan autoa uzten hasi dira jabeak. Eta zaharrak kale gorrian. Julianek etxetik eginda ekarri du bere pankarta: *Futbol zelai azpian, parkinga jarri!* Gregoriorik arazoari adarretatik heldu behar zaiola uste du, beste lelo hau proposatu die gainontzekoei: *Jubilatuak kale gorrian!*

Arratsaldeko seietan abiatu da manifestazioa herriko plazatik. Zaharrak eta gazteak. Emakumeak eta gizonak. Arrantzaleak eta lehorrean lan egiten dutenak. Hatxeberoak eta politikan sartzen ez direnak. Aurrean jubilatuek, goizean egindako pankartari helduta. Moilara begira amaitu dute kontzentrazioa. Kutzareak ikusten dira oraindik. Plazan zintzilik utzi dute kartela, hala dio: *Non dago gure baranda zuria?*

Hiltzailea, ni.

Miriam Garcia Etxeberria

Gutunazal zuriak lana esan nahi zuen, eta bat sartu berri zen atearen azpitik. Minutu batzuk pasatu zituen hari begira, aulkitik altxatu gabe. Ez zuen presarik bila joateko, ez baitzitzaion axola nork pasara zi zuen.

Pixkanaka joan zen aterantz, pausatuta, eta bide zuzena hartu gabe. Atetik bestaldera korridorean begiratzean inor egongo ez zela ziurtatu nahi zuen. Hobe horrela; eta atea itxi zuen. Hanketan zeukan gutunazala eskuetan hartu eta berriz ere mahairantz abiatu zen, presarik gabe oraingoan ere. Patxadaz bizi zen emakumea baitzen bera; ez zuen presaka ibiltzea atsegin, ezta bezeroak ezagutzea ere. Horregatik zen onena.

Aitak irakatsi zion onena izaten. *Azkarra izan behar duzu, sendoa; baina, batez ere, hotza* esaten zion. Eta bere esanak zuzen eta argi betetzen zituen. *Ez begiratu inoiz begietara, eta are gutxiago hitz egin.*

Urteak zeramatzan irribarre egin gabe, aita hil zenetik edo. Hitz egiteari utzi zionean amaitu zitzaizkion irribarreak. *Ez dut hitzik behar ofizio honetarako, ezta irribarrerik ere.*

Gutunazala mahai gainean utzi eta leihotik begira jarri zen, galtzadan zebiltzan autoei erreparatuz. Gustuko zuen autoei begira egotea, orduak pasa zitzakeen leiho ondoan zutik. Eta horrela egin zuen; iluntzen hasi zenean oroitu zen lana emango zion gutunazal zuria oraindik ez zuela ireki. Mahaian eseri eta gutunazalari so egin zion. Lodia zen, informazio asko zeraman seinale. Ez zuen gustuko informazioa. Azkenean ireki zuen, eta mahai gainean zabaldu bertan zegoena:

Argazki bat, helbide bat, eskutitz bat, zenbaki bat eta txanpon bat.

Argazkian gizon beltzaran bat ageri zen, hondartza batean irribarretsu. Hortz zuri eta handiak, begi berdeak eta ikatza bezain ile beltza zituen. Hondartzako hareak mehea eta leuna zirudien eta itsasoa oso urdina zen. Hainbat belauntzi ikusten ziren urrutira. Palmondoak ere agertzen ziren albo batean. Zoriontsua zirudien, baina laster utziko zion izateari.

Helbidearen orriari erreparatu zion:

Uldrin Dale 35

Brussels (Belgium)

Gustuko zuen bidaiatzea, eta bere ofizioak bidaiia asko eskatzen zituen; hori zen beste alde on bat. Eskutitza hartu eta irakurtzen hasi zen:

Cecile maitea:

Ez zuen gehiago irakurri. Ez zuen irakurririko. Eskutitzak informazioa ematen zuen, eta ez zitzaion informazioa gustatzen. Zenbakiarekin jarraitu zuen, beraz. 450.000

Bulego azpiko tabernara jaitsi zen. Komunera joan eta, itzultzerako, egunero hartzen zuen kafesnea whiskeyarekin mahai gainean zuen. Eskutan zuen txanponari, gutunazaletik ateratakoari, begira zegoen. Ez zen ez euroa ez ezagutzen zuen beste txanpon motarik ere. Urrez-

koa zen, eta medailoi batekoa zirudien. Itsasontzi baten irudia zuen aurpegi bakoitzean. Zulotxoetako belzturak zaharra zela adierazten zuten. Kafesnea bukatu orduko, barrara abiatu zen ordaintzera. Izkina batean zegoen itsulapiko gorrian txanpon zaharra sartu eta etxera joan zen.

Hurrengo egunean goizeko zortzietarako zegoen tabernan kafesnea hartzen.

Bazekien aireportuan zeuden milaka pertsonetatik gutxienez bat jendearen aurpegietara begira egongo zela bakoitzari istorio bat asmatzen, eta istorio horietako bat soldatapeko hiltzaile batena izango zela. Baina bazekien inork ez zuela bere aurpegia soldatapeko hiltzailearen istorioarekin lotuko.

Jendeak istorioak imajinatzen zituen bezala, berari asmatuko zioten istorioa imajinatu ohi zuen berak.

Internet bidez ezagutu eta maitemindu zen gizona ikustera zihoan enpresaburua izan zen, baita kafetegian utzi behar zuten baina inoiz iritsi ez zen pakete baten bila egunero joaten zen okina ere, edo ahizpa txikia lagunekin Indiara eginiko bidaian atxilotu eta berarengana zihoan haurtzaindegiko irakaslea. Hala ere, harakina-zen istorioa zuen gogokoen. Herri txiki bateko harakina zen bera, baina inguruko herrietan harategiak zituen kompetentziako kate bati bere negozioa saldu behar izan zion. Harategi kate horri harturiko gorrotoagatik eta bere harrotasunagatik ez zuen onartu lehen berea zen harategian lan egitea eta herritik urrun joatea erabaki zuen: Errusiara. Errusian ez zuen lanik aurkituko, ezta lagunik ere; eta ez zen errusiera ikasteko gai izango. Egun batean poliziak kalean aurkitu eta elkar ulertu ezinik, erotzat jo eta eroetxe batera eramango zuten. Handik ihes egitea lortuko zuen, baina iritsi berri zen negua zela eta hotzez hilko zen inor joaten ez zen Moskuko parke bateko banku txuri batean.

Oslo. 1989.

Malko bat isuri zitzaion ezker begitik. Arma lurrera erori zen soinu gogor bat eginik. Ez zuen gehiago behar jakiteko; zalantzak izango zituela pentsatu zuen, edo beldurra; baina ez, ez zuen ezer sentitu: ez poza, ez tristura, ez urduritasuna.

Hiltzaile bat bihurtu zen.

Hor zegoen, bera baino bi aldiz handiagoa zen hildako gizon baten aurrean eserita. Berak hil zuen.

Hamar minutuz edo geratu zen hildakoari begira. Buruz behera zegoen eta hankarekin bultzada bat eman ez gora begira jarri zuen. Begi handi eta borobilak zituen, oso irekiak, beldurrez bezala. Ezer sentitu gabe jarraitu zuen begi horiek begiratu ostean. Ongi ikasi zuen.

Aitaren hitzak gogoratu zituen: *Zu borreroa zara, ez epailea. Egizu dagokizuna.*

Eta zegokiona egin zuen. Ez zen gehiago epaile izan. Borreroa zen bera, ez epaile. Eta enkargatu zizkieten lanak

inor juzgatu gabe egin zituen beti. Ongi egin zituen lanak.

Ez zitzaion soldatapeko hiltzaile deitzea gustatzen. Nahiago zuen sikario. Politago geratzen zen, eleganteago. Sikario. Mafian bezala. Txikitan Al Caponeren sikario izan nahi zuen. Aitak barre egiten zion.

Iritsi zen Bruselara. Aireportuan zegoen, taxi baten zain. Bulego azpiko kafetegian eman zioten gutunazal horiaren barruan, besteak beste, laneko ordainaren erdia zegoen; eta hegazkineko txartela. Horrekin ziurtatu zuen lanak aurrera jarraitzen zuela. Eta han zegoen, Bruselan.

Taxira igo zen. Paper bat eman zion gidariari: Hotel Scandinavia.

Taxi gidaria txinatarrak zen. Edo japoniarra. Edo korearra. Inoiz ez zuen ikusi taxi gidari orientalirik. Grazia egin zion. Baina ez zuen irribarre egin. Harritu egin zen txinatarrak ingelesez ongi hitz egiten zuelako; berak baino hobeto egiten zuen gainera. Beti pentsatu izan zuen *erre* beharrean *ele* esaten zutela begi itxiak zituzten guztiek, baina honek *erre* esaten zuen.

Hotelera iritsi, dutxa bat hartu eta ohean etzan zen. Ez zuen ezertan pentsatzeko gogorik eta telebista piztu zuen. Iragarkiak, frantsesez. Ez zuen hitzik ere ulertzen, baina aldatzera zihoala hitz batek bere arreta bereganatu zuen: mort. Heriotzarekin zer ikusirik zuen edo zer bere interesekoa zen. Gizon bat hilik agertu zen edo horrelako zerbait. Argazkia erakutsi zuten.

Ezinezkoa da pentsatu zuen. *Ene. Norbait aurreratu egin zait. Kaka.* Hondartzako argazkiko gizona zen hilik agertutakoa. Ezinezkoa. Inoiz ez zitzaion horrelakorik gertatu. Nola zitekeen. Bera zen onena, bera eta ez beste inor. Bere lana ezingo zuen bete. Eta horrek ez kobratzea baino gehiago esan nahi zuen. Askoz gehiago. Jada ez zen onena, ez zen lehena, ez zen inor.

Delituaren tokira joan zen, ea nor aurreratu zitzaion jakiteko pistarik aurki zezaken. Inguru guztia zintaz itxita zegoen eta ezin zen pasa. Eta jendeari ez zion ezer ulertzen, frantsesez ari baitziren hauek ere. Ingelesez ari zen talde bat aurkitu zuen hizketan, eta haiengana gerturatu zen ea zerbait zekiten. Benenoz hil omen zuten. Horrek pista bat ematen zion estiloari buruz. Bere desberdina zen, biktimari gerturatu zitzaion hiltzailea, bestela ezin zion benenoa eman.

Kafe bat behar zuen.

Txikitan, bost urte zituela edo, aitari galdetu zion ea ezkontzen zenean bera poz-pez jarriko zen. Aitak baietz erantzun zion, baina segituan jaitsi zuen begirada. Bazekien ez zela sekula ezkonduko.

Berriz ere taxi gidari txinatarrak, edo korearra, edo japoniarra. Taxi gidari oriental asko zeudela Bruselan pentsatu zuen. Baina laster konturatu zen lehengo bera zela. Irribarre egin zion gidariak, eta aurrean jartzeko eska-

tu zion. Berritsua zen txinatarrak, eta normalean gogaitu egiten zuen horrek. Baina orainoan ez, urte asko eta askoren ostean, berriz hitz egiteko gogoia sentitu zuen, eta baita irribarre egiteko ere. Beldurtu egin zen, zituen sentipenengatik. Txinatarrari kasurik ez egiten saiatzen zen, bera gorrotatzen, barrerik ez egiteko. Leihotik begira igaro zuen bide osoa, ea nor aurreratu zitzaion asmatu nahian, baina ezin zuen ezertan kontzentratu. Eta, bat-batean, gelditu zirenean, konturatu zen gidaria begira zuela. Aspaldi ez zuela negarrik egiten, eta txinatarrak zikin horrek gizakia zela gogorarazi zion.

Bidaia ordaindu, taxitik atera eta hotelera joan zen. Gelan zegoela, poltsatik pilula pote bat atera zuen. Betidanik izan zituen hor, badaezpada, egunen batean kontzientzia pizten bazen. Baina inoiz ez zuen pentsatu egoera horretan erabiliko zituenik. Ez zuen nahi ezertan pentsatu, ez berak hil ez zuen hildakoan, eta are gutxiago taxi gidari txinatarrak. Bi ez, hiru pilula hartu eta ohean bota zen.

Lo sakona egin zuen, ametsik gabe, eta berandura arte. Umoretsu zegoen detektibe lanetan hasteko. Berriz gerturatuko zen delituaren tokira.

Gosaritara jaistean, ordea, sorpresa bat hartu zuen. *Zer egiten du hemen?* galdetu zion bere buruari. Irribarre egin zion txinatarrak, sarrerako butaka batean eserita zegoela, aldizkari bat irakurtzen. Berriz ere gorrotatzen saiatu zen, baina ez zuen lortu.

Gelaraino jarraitu zion txinatarrak. Atea itxi zuen molestatu ez ziezaion, eta dutxara sartu zen goiz hartan bigarren aldiz. Ez zuen pentsatu nahi, eta beste pilula bat hartu zuen dutxatik irtetean. Esnatutakoan hor jarraitzen zuen txinatarrak, atearen beste aldean, zain. Sartzen utzi zion.

Atearen ondoan geratu ziren biak, zutik, elkarri begietara begiratzen, zuzen-zuzen. *Zer nahi du honek?* pentsatzen zuen. Berriz beldurtu zen, bere buruaz. Urteak zeramatzen inorekin...

Arropa kendu zion txinatarrari.

—Lan bikaina egin duzu Dae-su.

—Baina nik ez dut ezer egin, gelatik irten nintzenean bizirik zegoen.

—Bai, eta hori zen plana: urte askotan oskol baten atzean babestu zen, eta hori haustea zen gakoak. Bestea berak bakarrik egingo zuen.

Sikarioa hilda agertu da

S. I. sikario famatuaren alaba, hau ere hiltzailea, hilik agertu da bart Bruselako hotel batean. Lo egiteko pilula pote oso bat hartu eta bere buruaz beste egin zuen. Urte askotan zehar polizia atzetik izan du emakume honek, baina inoiz ez dute lortu errudun zela frogatzea.

Beti, ez beste inoiz

Garazi Urretabizkaia Zabaleta

Pixkanaka, betileak gorantz joan zitzaizkion, kope-tan—eta, oro har, aurpegi guztian—zituen orbainekin hitz egin nahiko balute bezala, honela, begiak irekitzera—eta, aldi berean, esnatzera—behartuz. Sabaira begira geratu zen. Mutu. Beste mundu batean egongo balitz bezala. Beste pertsona bat izango bailitzan. Eta, agian, hor dago gakoa, berak ere ez zekiela—hala uste bazuen ere—benetan nor zen.

Burukomin izugarria nabaritu zuen iratzargailuaren txirrinak, supituki, sabaian ikuskatzen ziharduen hezetan orban eta abarretatik mundu errealerara jaitsi zue-nean. Burukomina eta tristura. Bere-berea zuen ohean arrotz sentitzen zelako. Etxean baina arrotz. Eta ez zegoen une hartan sentipen hori kenduko zion ez ezer, ez inor. Iratzargailu malapartatu itzali eta buelta erdia eman zuen; gainean zeukan ajeak bart gaueko laztan eta plazerezko oihuen jabea gutxienez bertan utziko zuelakoan. Baina ohearen beste aldean maindire zuri zurrunen hoztasuna soilik sentitu zuen. Ajeak guztia berarekin eramana zuen antza: hilabeteko soldata, egunez egun ahitzen zioan bere dignitatea, gaua alaiarazi zion amorantea... Den-dena. Beno, dena burukomina izan ezik. Eta bere gogoetetan murgildurik zegoen une hartan, maindire ilunak jarriko zituela erabaki zuen. Bere bakartasunean arrotzago sentitzeko, bere ezintasunean galduago, ilunago.

Egun osoa aurretik eta egiteko ezer ez duenaren nagitasunez ezarri zuen azkenean eskuin hanka lurrean. Eskuina, inoiz ez ezker. Andrea hil zen egunean ezker oinaz jaiki izana ez baitzion sekula bere buruari barkatuko. Eta, bat-batean, hegaldi sosegatu batean, burua egun hartara zuzendu zitzaion...

Egun osoa zeramaten gauean hasiko zitzaien *eztei bidaiarako* gauzak prestatzen, ordua noiz iritsiko zain. Egun osoa esan dut, baina aste osoa izango zen, agian. Bidaia arrunt bat zen, edozeinek, edozein unetan egiten duen bidaia horietako bat, itxurazko arrazoi existentzialik gabe burutzen diren horietakoa. Baina Andrea eta Julenentzat berezia zen. Horregatik erabaki zuten *eztei bidaia* gisan bataiatzea; batera urte dezente zeramatzaten arren, argi baitzuten ez zirela sekula ezkontzera iritsiko.

Iluntzeko bederatziatan irteten zen Londres aldera eramango zituen hegazkina. Bazekiten ez zela existi litekeen lurralde maitagarriena; bazekiten ez zuela ez Paris ez Veneziak ez beste hiri asko eta askok duten argitasun zein glamourrik. Horrexegatik aukeratu zuten hiri kosmopolita hura. Topikoetan ez erortzeagatik. Ardi zuriz josiriko artaldea den gizarte honetan, une batez ezberdinak, ardi beltzakizateagatik. Sukaldeko ordulariari begiratu zioten. Bostak eta laurden. Denbora sobera zuten aireporturantz irten baino lehen beheko tabernan azken

osteratxoa egiteko. Eta literalki, halaxe izan zen: azkena. *Zerbeza bat eta ongi kargaturiko kafe bat mesedez... Bai oraintxe bertan... Zenbat?... Seiehun pezeta... Joder, garesti zegok bizitza hemen!* Baina azken hori ez zuen esan, pentsatu soilik egin zuen. Eskaturikoa hartu eta mahaian eseri ziren, ordulariaren orratzek beren bidea ahalik eta azkarren egingo zuten esperantzarekin. Baina ez zen hala izan. Zerbait iristeko zain zeuden guztietan gertatzen den gisan, orratzak guztiz herdoildu ziren, segundo gutxiko instante txikiak, ordu luze amaigabeak bilakatuz. *Zer, urduri hago?... Bai, zerbait bai... Lasai, dena primeran aterako dun ikusiko dun!... Bai, nik ere hala ustediat... Maite haut... Edalontziak Ritcheren eskalan sei gradutako lurrikara jasaten ariko bailiran mugitzen ziren bi maiteminduen eskuetan, dardaratsu, beren ahotik etengabeko jarioz irteten ziren eleen konpas berean dantzatuz.*

Ordulariari begiratu zioten berriz. Zazpiak laurden gutxi. Eta eskutik heldu ziren. Eta une hartan (ez beste inoiz), bata bestearen aurrean begietara begira eseririk zeuden une magiko horretan, denbora betirako geratu zela iruditu zitzaion, eta denborarekin batera baita beraiek ere, izoztutako bi silueta bailiran. Eta musukatu egin ziren. Indartsu, pasio amaigabeaz, baina aldi berean goxo. Denbora luzerako itsasora doan marinelaren eta bere emaztearen arteko azken musua izango bailitzan, denbora luzez elkar musukatzeko aukera izango ez zutela alde aurretik jakingo balute bezala. Eta hori da tristeena. Azken musu hura goxoa iruditu bazitzaion ere, ez zutela zapo eder hartaz behar bezala gozatzeko aukerarik izan.

Ohe ondoko mesanotxean zuen azken tiraderatik pilula kaxa bat atera zuen. Kolore gorria zuena aukeratu zuen, ajea pasatzeko egokiena iruditu zitzaiolako. Ez arrazoi konkretu batengatik, besterik gabe, hala iruditu zitzaiolako baizik. Eta oihu egin zuen *Amaaa!*, ozen *Amaaaaaaaa!* ozenago ondoren *AMAAAAA!* eta beti erantzun bera... isiltasuna.

Zortzigarren aldiz egin zuen oihu isilak lau pareta zuri haien artean eztanda. Ala bederatzi izango ziren, agian, nork daki. Une horretantxe (ez beste inoiz) ireki zen azkenean logelako atea. *Zer nahi duzu maitea?... Ama, ekarri koka kola bat, mesedez... Ondo da...* Eta berak ama deitzen zion andre hark kola koka ekarri zion, pastilla errazago bultza zezan. Hori bai, hotza, izotzarekin, inoiz ez beroa. Koka kola beroak graziaz egingo ez ziolakoan.

Trago bat, bi, hiru... Hamar segundo ingurutan bukatua zuen ustezko koka kola kolakautua. Eta gustura sentitu zen; gustura eta lasai. Koka kolaren burbuila jostalariak gorputzean behera zihoazen heinean ajea desagertzen ari zitzaioneko sentsazioa gailendu zitzaiolako.

Eta harro sentitu zen. Burbuilek eraginiko haizeak sai-
hestea lortu zuelako harro; egunerokotasunetik irten eta,
gosaltzeko ohikoa zuen kola kaoaren orde, kola bat
bat eskatu izanaz harro. Harrotasunaren haizeak eragi-
niko korrontean hegan zebilela, begiak oihuka hasi zi-
tzaizkion, beherantz indarra eginez. Eta ez zuen berriz
ere eskuin oina ohean ezarri eta etzatea beste erreme-
diorik izan.

Berriz ere sabaira begira geratu zen; mutu. Begirada
ortzi mugaren batean galdurik, burua espazioan zehar
hegan baleuka bezala. Heroinak ematen duen barmelasai-
tasun sentsazioa bere zainen odolezko itsasoan txalu-
pa galdu baten antzera gora eta behera zebilkiola iru-
ditzan zitzaien, hartu zuen pilulak gazte denborako *txu-
teak* gogora ekartzearekin batera. Eta une horretan,
sosegua paradisuaren lainorik laino saltoka zebilen une
horretan bertan (eta ez beste inoiz), begiak ia guztiz itxi
zituen, ametsen ozeano goxoa murgiltzeko esperan-
tzarekin.

Begira, hor dago gaur ere, begiak erdi zabalik ohean
etzanda. Eta ni hemen, 10 zentimetro inguruko lodiera
duen pareta zurrun honen beste aldean, metal herdoil-
duz eraikitako atearen erdian gailentzen den barrotez
estaliriko leihoaren zirrikituetatik barrura so. Hiru hila-
bete daramatzat egunero etortzen, eta ez dakit zenbat
gehiago irauteko gai izango naizen. Pena ematen dit orain
gutxi arte nire bihotz erdia izan dena lau pareta hotzen
artean nola degeneratzen, hiltzen den, ikusteak. Pena
eta mina, nola ez. Baina are min handiagoa ematen dit
egoera aldatzeko ezer egin ezin dudala ikusteak. Eza-
gutuko ez ninduelako, hilda nagoela uste duelako. Eta
triste da beste munduan zaudela uste duen pertsona
bat egunero, zure aurrean, zure argazkiari begira erre-
zoka ikustea. Honelakoetan gelara sartu eta hemen
nagoela adierazi nahiko nioke, bere ondoan jarraitzen
dudala, ez naizela inora joan. Baina negar isila egitera
soilik muga ninteke, buruan ongi ordenaturik ez dituen
ideiak are gehiago nahas ez diezazkiodan.

Ezpainak banandu eta elkarriz so geratu ziren, irudi
batek mila hitzek baino gehiago iradokiko balu bezala,
bata bestearen begiradak irakurriz. Ezpainen konpli-
zitatez kargaturiko irriño bana marraztu zitzairen, bes-
tearen begietan irakurritako nobelak, nolabaiteko pikar-
dia puntu bat izango balu lez. Eta, horrela, ezer gehia-
go esan gabe, artean askatu gabe zituzten eskuak are
gehiago estutu eta bertako ezagun guztiei agur egin osten-
an, tabernatik irten ziren paradisu galduaren bila.

Udazkeneko egun bat zen, negua ate joka ari den egun
horietako bat. Euria eta hotza ziren nagusi. Hotza eta
haizea. Jendeak aterki pean lasterka ari zen, alde bate-
tik bestera, euri tantak azido tantak izango bailiran, hauen
ukitu hutsak euren biziak nolabait aldarazi behar bali-
tu bezala. Eta bi maiteminduek ezin izan zioten barre-
ari eutsi. Jendea zorutzen hasia zegoela ondorioztatu
zuten, mundua geroz eta okerrago zegoela. Eta aurre-
an, mundu berdinarekin barnean ehunka, milaka mun-

du txiki zituztela ohartu ziren. Lasterka ziharduten iza-
ki horietako bakoitzak berengandik ezberdina zen erre-
alitate bat bizi zuela. Palmera izugarriak ziruditen guar-
dasolen pean zihoazen denak, bakoitza bere helburua-
rekin, lasterketa amaigabe batean murgildurik egongo
bailiran. Baina ez zegoen lehen iristen zenarentzat ez
garaikur, ez saririk. Lor zezaketen opari bakarra euri azi-
dotutik aldentzea zen, beren ideia zein printzipioak zeruak
isurtzen zuen mamu izugarritik aldenduta mantentzea.

Baina beraie ez zuten lasterketa itxurako hartan par-
te hartu nahi; ez zuten (beste behin ere) besteek egiten
zutena egin nahi. Horregatik jo zuten eskutik askatu oste-
an kalea gurutzatzera, bidean topaturiko putzu orotan
hankak bustiz. Beno, horregatik eta beren buruak orain-
dik umetasun puntu bat zutela iritzi zutelako. Ez, ez zuten
helduen munduan guztiz murgildu nahi, ez zuten alfe-
rrikako etengabeko kezketan ito nahi. Oraindik bizitze-
ko asko zutela argi zutelako, etorkizunean heldu izate-
ko denbora sobera izango zutelako. Eta une horretan
(ez beste inoiz) zoriontsu zirela ohartu ziren.

Hogei minutu ere ez ziren igaro loak hartu zuenetik,
baina berari egun erdia igaro zela iruditu zitzaion. Ohe-
aren ezker aldean zuen leiho aldera begiratu zuen. Per-
tsiana erdi irekia eta, tartetik, eguzki printzak. Baina ez
zitzaion axola. Jada ez zion leihoari eguraldiaren berri
jakiteko begiratzen. Berdin-berdin zitzaion haizea nahiz
euria, eguzkia nahiz elurra. Ohitura soilagatik jarrai-
tzen zuen ondoan zuen kristaltxo hari begira. Andrea
bizi zenean, goizero esnatu eta lehenengo gauza hori
egiten zuelako. Eta hainbeste urteetan bere bizitza zena-
rekin konpartitutako usadioa galtzea errespetu falta
handi bat iruditzen zitzaiolako.

Bat-batean ohe ondoko karratutxoari begira zegoe-
la, logelako atea ireki zen. Berak amatzat zeukan andrea
sartu zen belarririk belarrirainoko irribarrea zekarrela-
rik. *Jolin, Julen, lo asko egin duzu e?... Bai egia esan bai...
Duxatu nahi?... Ez, orain nekatuta nago, geroxeago
agian... Ongi da, zerbait behar duzunean deitu ok?...
Bai ama, lasai. A! Zer ordu da?... Hirurak inguru... Ondo
da... Gero arte!... Bai... Ezin esango zion oraindik goi-
zeko hamarrak ere ez zirela. Are gutxiago bezperan
parranda egin zuela pentsatzen ziharduen bitartean. Bai-
na Julen ez zen ezertaz konturatu. Gaueko bedera-
tziak zirela esan izan balio ere berdin-berdin sinetsiko
zion.*

Amak aldegitarekin batera buelta erdia eman zuen
ohean. Mesanotxean zeukan argazkia hartu eta ari so
geratu zen. Andrea bizirik egonez gero nolakoa izango
ote zen galdetzen zion etengabe bere buruari, oraindik
batera jarraituko ote luketen ala ez, familia bat sortze-
ko nahia izango ote zuten... Etengabe etortzen zitzaion
galdera andanak ez zuen bere buru pattaldua aztoratu
baino egiten; bere mina areagotuz, bere orientazio eza
are gehiago indartuz. Eta ez zuela gehiago horretan pen-
tsatuko erabaki zuen. Eta une horretan (ez beste inoiz)
bere amak armairua erdi hutsa izango zuela otu zitzaion,
egunero bata berdinarekin ikusten baitzuen. Eta bata-

rekin sukaldean erlazionatu zuen, eta arrain zopa, eta ilun-
tzeroko sagar pasteltxoa, eta pasteltxoak biltzen dituz-
ten fabrika, eta fabriketako langileak... Eta berak ea zer-
gatik ez zuen lanik egiten ere pentsatu zuen. Baina gai
korapilatsuegia zela eta beste baterako uztea erabaki zuen.

Aiiii... Begiak ireki eta leihora begira geratu da. Ile
nahasia du, begirada galdua. Ez du denboraren zentzua
jarraitzeko indarrik, ez daki non dagoen, ezta nork ingur-
ratzen duen ere. Bere ama erizainarekin nahasten du
momentu oro... Bere ama bizirik balego sikiera! Baina
beno, bere horretan aurrera doa eta ez da gutxi. Nik ez
dut aurrera egiteko ez indar ez adorerik. Kulpa sentsa-
zioak jaten dizkit barneko errai guztiak. Bizirik eta ondo
geratu izanaren kulpak. Bera horrela geratzearen kul-
pak. Baina ezin dut ezer egin. Oroitzapenez elikatze-
aren edota bizitza berri bati ekitearen artean aukeratu
beharra dut. Baina ez da hain erraza. Batez ere berak ez
duelako beste inor. Nahiz eta berarentzat ni ere ez nai-
zen existitzen.

Eta amaigabeko zoriontasun horretan, autora sartu
ziren. Betiko tokietan eseri ziren, Julen gidariaren tokian
eta Andrea ondoan. Biek gidabaimena izan arren, Andre-
ak bolanteari beldurra ziolako. Eta Julenek gozoki bat
atera zuen. Pixkanaka, kontu handiz papera kendu eta
mingain puntarekin ukitu ostean, Andreari luzatu zion.
Honek gustu handiz hartu eta, bi aldiz pentsatu gabe,
ahora zuzendu zuen limoi zaporeko borobiltxo hezea.
Eta une horretan (ez beste inoiz) harro sentitu zen. Harro
eta gustura. Ez oso gozo zalea zelako, ez. Ekintza horrek
bikotearentzat sinbolizatzen zuenagatik baizik. Sarri-
tan esan ohi zion Julenek bere musuak limoi zaporeko-
ak zirela. Goxo-goxoak. Marrubi zaporekoak zirela ere
gustura esango lioke, txikia zenean marrubien erruz izan
zuen gaixoaldi batengatik izan ez balitz. Ezin zuen
marrubia usaindu ere egin. Horregatik konparatzen
zuen Andrearen laztan eta fereka bakoitza limoiarekin.
Horregatik eta originala izateagatik, zergatik ez. Arrazoi
horrek egiten zuen limoizko gozoki hura ezberdin.
Andreajak jakin bazekielako, borobil itxura zuen zapore-
ko zera hura, Julenen *asko maite zaitut* esateko modu
bat zela. Papera kendu eta mingainarekin ukitu ostean,
Andrearen musuak onartzen zituela adierazten zuela-
ko, eta aldi berean miatzatu ostean gozokia berari pasa-
tzeak, eternitatean bere musuen iturritik edaten jarrai-
tu nahi zuela azaltzen zuelako. Hori denborarekin ika-
si zuen Andreak; lehenengo aldiz hori egin zionean narra-
hutsa zela pentsatu baitzuen. Baina denborarekin, gau-
za gehienei bezala, gustua hartu zion.

Eta gozokiaren jolasean murgildurik zebiltzala, bie-
i barre txikia marraztu zitzaizen espain hertsien artean.
Gustura zeudelako, elkar maite zutela argi zutelako. Eta
beti pentsatu izan zuten maitatzea eta maitatuak iza-
tea dela mundu honetan pertsonak senti dezaketen sen-
tsaziorik onena. Eta limoizko gozokiaren laguntzaz, ero-
tismoaren jolas hezean murgildurik zebiltzan bitarte-
an, ia ohartu gabe aurrera zihoazen, inurriak ziruditen

auto ilaren artean, aireportura iristeko gogo biziz. Eta
une horretan (ez beste inoiz) San Agustín filosofoare-
kin gogoratu ziren, berriz ere zorionsu sentitu zirela-
ko, eta Platonekin, maitasun platonikoa bizi zutela ziur
zeudelako.

Baina platonismo horretan murgildurik, ez ziren
aurrean zutenaz ohartu. Julen Andreari begira zihoan,
bere maitasunean itsu, bere *eztei bidaiaren* ilusioan are
itsuago. Eta ez zuen aurrean bat-batean balaztatu zen
autoa ikusteko betarik izan. Ezta berak garaiz balazta-
tzekoa ere. Eta krak. Kolpea. Andrearen oihuak. Krista-
la txiki. Oihu gehiago. Julenen odol jarria. Konortea gal-
tzea. Negar geldiezina. Odol errekek gorputzean behe-
ra. Panikoa. Beldurra. Histerismo amaigabea. Minutuak.
Segundoak. Argiak. Soinua. Orroak. Argi gehiago. Anbu-
lantzia...

Ohean jarraitzen zuen, etzanda, sabaira begira. Eta
bertatik zintzilik zegoen kable batek estalaktik ekarri
zizkion gogora. Eta kobazulo batean zegoela otu zitzaion,
historiaurreko leize batean. Kabernikola izango zen
bera eta bere gorpu lerdana estaltzeko animalia larru gisan
hartuko zituen maindireak. Eta une horretan (ez beste
inoiz) horixe egin zuen. Ohetik altxa eta maindire zuriak
lepo gainetik zintzilik jarri zituen, gela osoan zehar sal-
toka zebilen bitartean. Honelaxe ibili zen nazkatu eta
berriz ere ohean sartzea erabaki zuen arte. Eta buruari
buelbaka hasi zen...

Txikia zenean izan zituen arrain laranjekin gogora-
tu zen, eta bere lehenengo baloiarekin, eta Ernioaren pun-
ta elurtuarekin, telebistako pailazoekin, amonaren per-
manenete egin berriak bota ohi zuen usainarekin, urte-
betetze tartetako kandelatxoekin, anaiarekin izandako
liskarrekin, aitonaren galtzontzilo handiekin eta bere txi-
kiekin, ilerik ez zuten gizonekin, Hansel eta Gretelekin...

Eta orduan (ez beste inoiz) txokolatea etorri zitzaion
gogora. Eta pasteltxoak. Eta gozokiak. Eta limoi zapo-
rea. Eta Andrearen musuak. Eta limoizko gozokitxo
hezea... Eta gauzak gogoratzen hasi zen: istripua, etxe
azpiko taberna, azken garagardoa, musu goxo hura....

Gaur pentsamendu asko etorri zaizkit burura be-
ri begira nengoen bitartean. Ez dakit, geroz eta okerra-
go dagoela iruditzen zait. Goizaldean oheko izarak har-
tu, burutik behera jantzi eta gela osoan zehar saltoka
eta oihuka ibili da, norbait edota zerbait harrapatu
nahiko balu bezala, eztarriko erraietatik hitz arruntak
izan nahi zuten soinu arraroak atereaz. Gero, aldiz, ohe-
an etzan da, egunero bezala, sabaira begira. Begirada
galdua zuen gaur ere, bai, baina zerbait arraroa suma-
tu diot. Harridura espresatzen zuen, beldur zertzeladak
ere bai, espero ez zuen zerbait gogoratu izan balu beza-
la; aspaldiko zerbait oroitu izan balu lez. Eta ni ere bel-
durak harrapatu nau. Medikuek ezinezkoa dela esan
arren, agian zerbait gogoratzen hasi delako, agian ni bizi-
rik nagoela oroitu duelako. Ez. Ezin dut horrela jarrai-
tu. Ezin dut antzerki honen ezkutuko protagonista izan.
Ezin dut eta ez dut nahi.

Amaaaaa! Oihua. AMAAAAA! Altuago... Zer behar duzu, laztana?... Zer ordu da?... Bostak inguru... Ongi da, mesede bat eskatu behar dizut... Esan... Ekarriko al zenidake mesedez limoizko gozoki bat?... Ongi, berehala nator... Eta erizaina, harridura osoz, gozokiaren bila abiatu zen, kalterik egingo ez ziolakoan. Tori, hemen duzu seme... Mila esker... Zerbait gehiago behar?... Ez, lo pixka bat egingo dut, nekaturik nago... Ondo da, gero arte!... Bai... Eta kontuz heldu zuen gozokia eskuan. Pixkanaka hasi zitzaion papera kentzen, bizitza honetan azkena egingo zuen gauza balitz bezala. Suabe atera zuen mingaina ahotik, eta are lasaiago gerturatu zuen gozokirantz. Laztandu egin zuen, emekiro, behin eta berriz, zakur batek bere jabea miazkatzen duen bezala. Eta horrela, papera erdi irekita eta gozokia erabat hezetuta, ohe ondoko mesanotxean utzi zuen, Andrearen argazkipean. Maite zaitut, Andrea, zauden tokian zaudela ere maite zaitut... Eta une horretan (ez beste inoiz) begiak itxi eta loak hartu zuen.

Ez! Hori ez Julen, hori ez... Gogoratzen hasi da, limoizko gozokia zuzendu dit berriz ere, azkena ikusi ninduenan egin zuen bezala... Orain bai, ezin dut gehiago! Badakit ni ere hemen egon nintekeela pentsatuko duela, badakit konortea galdu aurreko uneak bat-batean burura etorri zaizkiola... Eta ezin dut jasan. Orain hor dago, gozo-gozo ametsetan, ezer egin ez balu bezala. Nire argazki ondoan utzi duen gozokia laztandu izan ez balu bezala. Maite nauela ahots altuan esan izan ez balu bezala. Ezin dut, ezin dut gehiago, zerbait egin beharra daukat...

Eta une horretan, ez beste inoiz, Andrea gelara sartu zen. Sakelatik istripuaren egunean Julenek eman zion gozokia atera, mingainarekin leun laztandu, eta Julenek hasitakoaren ondoan utzi zuen, bere argazki azpian. Notatxo bat ere utzi zuen gozokiaren ondoan: *Nik ere maite zaitut, Julen. PD: Ez zait behin ere limoi zaporea gustatu* Eta une horretan, ez beste inoiz, berriz ere zoriontsu sentitu zen.

Azken hitzen balioa

Eli Urdangarin Zumeta

Egunero bezala, goizeko bederatzietan, etxeko txirrinak jo du. Herriko postaria, noski; beti gurean jotzen du eta oraindik ez dakit zein den horren arrazoia. Agian, gure abizena du atsegina... Auskalo!

Egia esan, jada etxekoa dirudi gure Josetxo postariak, nire familiako batzuekin baino gehiagotan hitz egiten baitut berarekin.

Josetxok ere ekartzen ditu bere nobedadeak kaletik, nire aitona bera etorri zain egoten da, dena jakin nahian. Adinak ere ez duela barkatzen eta, hala ere, ezin da kexatu, goiza etxean pasatzen du, goxo-goxo; bere kafesnea gailletekin gosalduta eta egunkaria irakurtzen du jarraian, eta hori izaten da eguneko unerik gustukoena eta, zerbait behar badu, hor nauka ondoan. Arratsaldetan lanera joan aurretik, Zaharren Babeslekura laguntzen diot.

Gaueko hamabiak dira. Nahiko lan egin, denak agurtu eta etxerantz.

Lanbroa dago bidean, eta kontu handiarekin ibili behar. Ageri dira nire herriko argiak; egia esan, segituan iristen naiz etxera eta hori eskertzekoa da.

Etxeko atea ezin dut ireki. Zerbait badu azpian trabatzen duena. Hara! Eskutitz bat da! Zer arraroa! Ordu hauetan eskutitz bat?

Nire aitona izenean dago. Orain lo egongo da eta bihar goizean eman beharko diot.

Iritsi da goiza eta, betiko moduan, aitona sukaldean ari da gosaltzen eta hantxe sartu naiz bere eskutitza eskuan dudala.

—Zer? Neskaren batek idatzi al dizu?

—Ez, aitona! Zuretzat da eskutitza.

Aitona harriturik irakurtzen hasi da, eta amodiozko eskutitza dela dio. Benetan maite duen norbaitek idatzia omen da; asko maite duela eta eskerrak ematen dizkiola beti ondoan egoteagatik.

Aitonak ezin zuen sinetsi ere egin. Emozioz, malkoak alde egin zion. Lasaitzen saiatu nintzen, baina alferrik zen; berarentzat gehiegizkoa zen.

Egia esan, zeinek esan 85 urterekin maitasunezko eskutitza jasoko zuenik? Niri ere oilo ipurdia jarri zitzaidan aitona horrela ikusita. Amona hil zenetik, ez nion irri hori ikusi aurpegian. Beste bat zirudien.

Hura ezinegon aitona! Buruari jira eta bira, nork idatzi ote zion pentsatuz, ez baitzuen letra ezagutzen. Zaharren Babeslekuko baten bat zelakoan zegoen; Maria edo Felipa, zioen berak; baina, egia esan, hainbeste maite zuena? Norena ote?

Aitona, hala ere, gustura zegoen, arratsalde osoa pasa zuen eskutitza erantzuten. Nire amak dioen bezala, aitona bizitzeko ilusioa berreskuratu du eta hori ordaintzeko dirurik ez dago.

Josetxo postariari ezin ezer galdetu, hark ekarritako eskutitza ez baitzen. Erantzutekotan ere, berriz ate azpitik botako zutela esan zion Josetxo postariak; baina, egunak joan eta egunak etorri, eta erantzunik ez.

Halako batean, Josetxo postaria tinbrea jo eta jo, eskutitza zekarrela Frantzisko nire aitonaarentzat, eta azkar

irekitzeko. Aitona denak emanda gerturatu zen atera. Bai, berarentzat zen. Urduritasunak jota hasi zen eskutizari begira eta, halako batean, aurpegia guztiz aldatu zitzaion eta niri eman zidan gutuna. Poliklinikako sei-lua zuen, ez zen gure aitona espero zuena; baina, hala ere, irakurri egin behar.

Honela zioen:

2006/12/14

Kaixo, Frantzisko.

Maria Anjeles naiz, zure emaztea azken egunera arte zaindu zuen erizaina.

Aurreko asteartean iritsi zitzaizun eskutitza orain dela hamar urte idatzia da. Hain zuzen ere, neronek idatzia, baina beti zure emaztearen hitzekin. Niri eman zidan zuri emateko; baina galdu egin zitzaidan eta, aurreko batean, garbitzaileak kaxoi batean aurkitu zuen. Bada-kit urte asko pasa direla; baina, hala ere, zurea zen zerbait nuen eta eman beharra neukan, hori izan baitzen zure emaztearen azken nahia.

Ni ere ez nintzen ondo sentitzen eta orain kontzientzia lasai daukat.

Barkatu nire baldarkeria. Ulertuko duzulakoan, agur: Maria Anjeles

Aitona negar batean hasi zen, baina ez ziren tristeziaren malkoak, maitasun malkoak baizik. *Nire Inaxi, ai, nire Inaxi! Azken momentuko indarrekin ere maite nauela esan behar!* zioen aitona.

Egoismo eta gabardinez

Ane Etxabe Arruti

Martinek egunkaria irakurtzen omen zuen. Beno, edo hori esaten zuen behintzat, bere izaeraren ezaugarri berezia balitz bezala. Hala eta guztiz ere, eta nahiz eta jakin ekintza honek identitate dokumentuen zenbakiek bezain gutxi esaten duela pertsonetaz, ez zen egia. Izatez, gezurra zen.

Izan ere, kriterio apur bat desmadraturaz hartzen zuen periodikoa letzeko afera —periodikoa letu esaten baitzuen berak ere, aitona bezala—. Atzetik hasten baitzen. Gainera, bere ustez hau hereditarioa zen, sudurrak eta aldarte aldatze bortitzak bezala. Bai amonak, amak eta baita aitak ere horrela egiten baitzuten. Aitonak ez, ordea, dena esan behar bada. Aitonak periodikoa ortodoxoki irakurriko zuen; batzuen ustez, igual, konformistak.

Genetikaren gauzak pentsatuko zuen Martinek, gano-razko edozein pertsonarentzat aproposak ez diren orriak, disimuluzko begiradaxo bat emateari utzi gabe, al baitzakarren pasatuz.

Neskak deitu zion tabernako telefono koloretzura Martini. Eskegi zuenean, barrua hustu ziotela sentitu zuen, koilara bat hartu eta frutaren bati mamia kendu balio-te bezala. Hala ere, kafe hutsa sakarinarekin eskatu zioten. Kobratutakoan, periodikoa letzen jarraitu zuen, kafea bezain hutsa. Eta, hala ere, jarraitu zuen irakurtzen, kirolak, politika, internazionala. Martin momentu hartatik aurrera kafea bezain sakarinatua sentitu zen, gozotasun artifizialezkoa.

Ezer espero ez izatearen abantailak ugari dira. Hasteko, esperetakoa hutsa denez, etorritako guztia izugarri estimatzen dela. Eta, egia esan, Martari ez zitzaion besterik otutzen. Hortxe bukatu zuen *Ezer espero ez izatearen abantailak* tituludun lista edo zerrenda imajinarioa. Denbora bat lehenago ere (apenas ez ziren igaroko 38 minutu) ez zion, ezta ere, gauza handirik eskatuko. Eguerdiren bat edo, baina hori ere errezero handiz. Eta orduan pasa zen dena. Eguerdia zen, ordu biak zehazki, pare bat ordu gehiago Yemenen. Eta bera bakarrik zegoen, edo bakarrik bere buruarekin. Ez zekien ziur zer zen okerrago. Egia esan, ordura arteko eguerdi gehienak ebatsi zizkion, bere baimenez, noski. Batzuetan elkarrekin zeudelako, bestetan berarekin izatearen esperoan egongo zelako.

Hori, hala eta guztiz ere, ez zen alkoholera eman edota zubitik bota edo elizaren batean sartzeko nahiko arrazoi izango Martarentzat. Hantxe jarri zen, zoritxarreko tabernatik atera eta aurrena bilatu zuen taberna hartan eserita. Ez taberna bazterrean, taberna ezezagunetan sartzean egin ohi den moduan. Taberna hartako lekuri hoberenean eseri zen. Hura arrandegi txikiren bat izango balitz, norbaitek jada kargu hartu izango zion. Baina tabernak, normalean, ez dira arrandegiak. Baina, esan bezala, Martak ez zuen gintonik hartu. Martak kolakaua eskatu zuen. Eta inork ez zuen susmo txiki-rik izango Martaren barruan zebilenari buruz. Izan ere,

eguerdian kolakaua inkognitozkoa da neska gazte baten-tzat. Gintonika eskatu balu, berriz, agerian geratuko ziren bere sentimendu guztiak. Horregatik, kolakaua edan zuen, malkoei eutsi nahian, esnearen beroak eztarria erre ziezaioren, trago bakarrean edanaz. Erre biezaio eztarria, erre barrua, erre dena. Whisky gogorrena bailitzan. Oinaze batentzat paliatibo onena beste min handiago bat den konbentzimenduz.

—Martin?

—Bai, zer?

—Pentsatzen jardun naiz...

Eta esango zion ez zela hasieran bezala, hobe zela orain utzi gaizki egon baino, maite zuela baina...

Kafe hutsa.

Sakarinarekin, mesedez.

Ados zegoela esan zion. Ulertzen zuela zioen guztia, noski. Heldutasunez esan zion azken hori: *Ulertzen dut hori guztia*. Eta bizitza horrelakoa dela esango zion, noski. Bazekiela egun batean pertsona bat era batera ikusten zela, eta bestean, eta hurrengoan, ba, aldrebes. Bai, hori dena bazekien. Esan zionean, ordea, lasai egoteko, laster bilatuko zuela bera baino egokiago bat, zoriontsuago egingo zuena, seguru. Berak egin zuena baina zoriontsuago.

—Bai, eta egunero ez da igandea, eta bihar ere argituko du eguna, ezta?

Eta kafea bota zion gainera. Kafe iraulia labana bat izango balitz bezala. Jertsea zuria izan balitz lotsa eman-go zion kalera irtetea ere. Baina Martaren zoritxarrerako jertsea beltza zen, eta apenas nabaritzen zitzaion gorrotoak kafearen laguntzaz utzitako legatua. Beraz, apenas segundo batez begietara begiratu ondoren, mahaitik altxa zen, hitz erdirik esan gabe. Segundo batez begiratu ta soilik. Ez zion ezer esan, baina dena soberan zegoen. Kafedun jertseko mutila tabernatik atera zen, eta ez zai-gu inportako zein ziren Marta uzteko arrazoiak. Nahia-go izango dugu mutilaren irrazionaltasun eta erokeria suposatzea, justifikatzen inolako paradarik eman gabe. Martak ere jakin bazekien seguraski, egunen batean...

Urtu egiten zuen. Urtu. Horixe izan zen bere bizitza laurdena, agian erdia ere, uztearen arrazoiak. Urtu egiten zuela. Eta ez zuen beste esplikaziorik aurkitu. Horregatik ez zion esan Martari maitasuna ere hierarkikoa dela, eta sentitzen zuela, baina oraingoan bigarren postua ez zela nahiko izan. Hauek ez dira olimpiadak eta ez dago zilarrik, ez brontzerik, ezta diplomarik ere. Non-bait irakurri bezala, monogamia inperfektua delako.

Eta erraza dela maitatzeko norbait aurkitzea, maite normal, esan nahi da. Ez maite eta desiratu txuri-bel-tzean, filmetan bezala. Mikelek oroitu zituen txuri-bel-tzean gabardinetan maitatzen ziren haiek, eta alderatuko zuen beste neska hartaz sentitzen zuenarekin. Ez zekien zer izango zen horrela maitatzea, eta jakin baze-

kien Casablanca ez dela Euskal Herria, eta inguruan zituen marokoar bakarrak bere etxe azpiko lokutoriokoak zirela, eta gerrak disimulatuagoak direla. Baina jakin bazekien Mikelek beste neska haren presentziarekin horditu nahi zuela denbora luzez. Nahiz eta ez izan txuri-beltzean.

Urtu egiten zuelako.

—Kolakau bat.

Ez zion mesedez eskatu. Baina ez zen hori gorroto zantzua etortzeko arrazoia; Martin seguru zegoen hortaz. Neska izatea arrazoi sobera iruditu zitzaion bere subkontzienteari, antza. Eta saiatu zen ahal bezain gutxien nabari ziezaion barrua sutan. Han zegoen neska hura, lasai, bakarrik, tabernako lekurik onenean eserita. Agian, beste norbait utzia izango zuen pare bat ordu lehenago. Eta, agian, kabina batean enteratuko zen mutila ere.

—Hementxe. Euro bat eta bost xentimo.

Logikaz, Martak horrelako gorroto zantzu bat izan beharko zion mutil hari. Izan ere, ez zion eskerrik askorik eman, eta, gainera, mutila zen. Baina kontrakoa gertatuko zitzaion Martari, erabat era ulergaitzean, logika bera ere ez delako logikoa normalean. Berehalako sinpatia bat hartu zion zerbitzariari. Seguru neska duela. Pentsatu zuen Martak. Eta tabernako lekurik onenean eseri zen.

Mikel Miriamekin elkartu zen eguerdi hartan. Eta egindako min dena gutxi inporta zitzaien.

—Zer esan dizu?

—Ezer ez. Uste baino hobeto hartu du. Kafea bakarrik bota dit gainera.

Kotxean sartu ziren, zoriontasun ia absolutuz.

—Eta zuri?

—Ez dit ezer esan. Baina ez dakit gaitutuko duen.

Ez da polita izango esatea, baina elkarrizketa hau burokrazia hutsa izan zen, tramite hutsa. Bai batari eta bai besteari axola zion bakarra hura zen. Kotxe haren barruan gertatzen zena. Horregatik abiatu ziren, eta, pertsona txarrek bezala, ez zuten inolako arranguririk sentituko. Ez ziren lehen tenpluan sartu eta konfesatuko.

Eta *furor amoris*-a existitzen bada, seguru egoismoz betea dagoela.

Arrantzaleak leen eta orain

Joxe Mari Lertxundi Zuloaga

1

Ai, lengo Orioko
ogibide zarra,
arrantza izan zala
nai det azpimarra.
Txalupa ta arraunak
ta giza indarra,
derrior bear zuten
gatza ta piparra,
gaindituko bazuten
Kantauri zakarra.
Baña ori etzuten
aurkari bakarra,
etsai maltzurrena zan
Orioko barra.
Errira ekartzeko
antxo ta txitxarra,
aldiero ortikan
igaro bearra.
Buruzgain eragiñez
olatu aparra,
noranai astinduaz
txalupa kaxkarra.
Eta joasitzean
arroka baztarra,
orduante askoren
azken deiadarra.
Eriotz beltzak jaurti
zien atzaparra,
gero illobi zuten
urpeko ondarra.
Or gizonak galdutzen
ziran barra-barra,
aita edo anaia
geienbat senarra.
Betiko itzaliaz
sendiko izarra,
ta etxeko damatxo
aien irribarra,
ura ere zegoen
itzali samarra.
Giro beltzak estali
zuan ostadarra,
danetik zan eziña
kezka ta abarra.
mantenkizun gutxi ta
gorputza mearra,
legorturikan ama
askoren bularra.
Eta aur gaixoentzat
ura zoritxarra,
aien asegarria
zan gosebelarra.

Ama aientzat berriz
zartzaro goiztiarra,
bi nagusiren menpe
alargun maiztarra.
Bata zan mixeria
bestea negarra,
ta erru danen ama
itxaso litxarra.

2

Berrero mintza nai det
leengo arrantzalez,
oroitzen geranean
aien iraganez,
oraindik ere jartzen
gera atsekabez.
Laguntzerikan nola
ez dagon tamalez,
zerbait egitekotan
otoitzaren bidez.
Arbaso zarren kabi
Orio ziñanez,
aien odolekoak
gaur bizi diranez,
beraiengana noa
orain maitasunez.
Neurtitz auxe eskaintzen
diet biotz onez,
eta izan dedilla
guztien omenez.
Urte asko lenago,
kondairak dionez,
gizon berezi baten
berezko almenez,
baporeko makiña
sortu zorionez.
Gero itsasontziak
beraren indarrez,
arrantzarako ere
ondo zetorrenez,
arrantz ontziak jarri
zituzten baporez.
Txalupazko arrantzak
gainditu amarrez,
denboran poderioz
geiagon bearrez.
Norbaiten eskuz sortu
zan aurrerapenez,
osatu ziran ontzi
aundi ta ederrez,
motor dieseldunak

baporean ordez.
ain ondo prestatuak
irradi radarrez,
barra gaizto orretaz
ez dira beldurrez.
Orma zar aundi batek
eginikan babes,
ortikan igarotzen
dira oso errez.
Urrun jua litezke
itsaso zabalez,
ontzia zamatzera
antxo ta abarrez.
Urte onak izanak
badituzte aurrez,
baña azkenaldian
dabiltza aldrebez.
Aurrerapenak onak
izan arren, berez,
arraientzat ez dira
gertatu mesedez.
Asko nola dabiltzan
bolantazko sarez,
neurriak zapalduaz
egunez ta gaubez,
geiegiakeriaren
grña doakabez,
arrantza aundiekin
egñikan amets,
leen itsasoa zaindu
ez dalako legez.
Ara, zer gertatu dan
emen zoritxarrez!
arrantza egin nai ta
orain arrairik ez.

Ortara irixten dana
bear da omendu,
itsasoak ezberdin
beti jokutzen du.
Batzutan goxo-goxo
jendea artzen du,
ta zakartzen danean
albada alden du.
Arrantzale zar batek
zer ziran gomendu,
zuk itsasora noizbait
sartu nai bazendu.
Ekaitz aldia naiz ta
zearo urrundu,
geiago ez dalakoan
ez itsas barrendu.
Noiznai sortutzen dira
uda eta negu,
arrantzale jendea
jarriaz ernegu.
Batzuek biraoka
besteak erregu,
orrelakoa sarri
ezagutu degu,
itsas gizonak ori
izan du eredu.
Itsasotik zenbat gauz
ditugun sormendu,
naiz ta bere emaitzez
milloika mantendu,
emankor dan neurrian
liteke zekendu.
Len eta orain, beti
berdin egiten du,
berak bizia eman
eta berak kendu.

3
Neurtitz au itsasorantz
nai nuke zuzendu,
ain putzu aundi orrek
non duan zimendu?
Zenbat arrai mota ta
zenbat mugimendu,
bere barne bizitza
jakingo bagendu.
Guzti oien aztarna
goiz edo berandu,
jakite gizonak
lortuko omen du.

Oroitzapenen ganbara

Garazi Urretabizkaia Zabaleta

1

Urte luzeetan izan naiz
argi esango dut hara,
isiltasunaren esklabu,
oroitzapenen ganbara;
baina jadanik iritsi naiz
pazientziaren mugara,
orain denbora dezente
heldu behar nuen hartara.
Baina gaur aukera bat daukat
ezin ninteke ikara
beraz nire pentsamenduak
bota ditzadan plazara.

2

Mendi aldetik iritsi zen
bat-batean aldarria,
berritu beharra zegoela
aldameneko herria.
Autopista eraiki zuten
une gogoangarria!
Baina halare ezin asetu
askok zuten egarria.
Porlanez estali dituzte
hondartza ta armarrria,
lurpean ezkutatuaz
betiko nire irria.

3

Galdu nituen moila zaharra
eta gero enparantza,
baserri ederrak, mendiak,
hainbat larre ta baratza...
Etxe berriak eraikiaz
orekatu nahi balantza
tristuren gainera piztuaz
jendearen esperantza;
etxebizitza babestuak
ilusioen ardatza
espekulazioak mugitzen du
herri zahar honen norantza.

4

Non dago Dikeko parkea?
Eta non palazioa?
Non sartu da Boga-bogako
udaretako giroa?
Galdua da gure hondartzak
zekarren misterioa,
baita futbol zelai zaharreko
pipa jate sesioa
Orain dena da handitasun
ta modernizazioa,
jende askorentzat kaltea
batzuen negozioa.

5

Garai batean herria zen
goitik behera euskalduna
eta denek miresten zuten
gure hizkuntza kuttuna.
Baina hori ere geratu
zaigu jadanik urruna
gaur erdarak zuzentzen baitu
egunerokotasuna.
Turismoaren itsasoan
bera kapitain zurruna
euskarari argituko al zaio
berriro inoiz eguna?

6

Horra hor bada nire kezka
gehienak ditut atera
dena den azken gauzatxo bat
noa errepikatzeraz:
Adreiluak ordezkatu du
naturaren azalera
lurrak zeuden tokian orain
gizakiaren afera.
Horren aurrean gonbite bat
luzatu nahi dut aurrera:
*Ongi etorri Orio den
Herri artifizialera.*